

AMADOR FERNÁNDEZ SAVATER

Amador Fernández Savater saiogile eta ikertzaileak, *Castoriadis. Encrucijadas de la creación* mintegian, gogora ekarri zituen Castoriadis-en zenbait kontzeptu, bere ustez errotikoenak eta emankorrenak direnak.

Lehen kontzeptua Historia izan zen. Fernández Savatarrek gogorarazi zuen ezen joan den mendeko 50. hamarkadan Historiari buruzko ideiarik zabalduena, Marxismoak eta beste pentsamendu korrante batzuek defendatzen zuten bezala, haxe zela: Historia aurrez erabakitako zerbait da. 60. hamarkadan, berriz, Altuserrek eta beste pentsalari batzuek eskema hori zalantzan jarri zuten, eta berriro pentsatu behar zela esan zuten. Castoriadis harago joan zen, eta Historiaren kontzepzio berria ekarri zuen. "Castoriadis-en ustez, historia ez da gauza bera berriz ematea, baizik eta forma berrien sorrera, hain zuten, idatzi gabeko eta egungo egoeraren azterketatik ondorioztatu ezin diren formen sorrera. Historia sorkuntza da batez ere", azaldu zuen Fernández Savatarrek.



Historiaren kontzepzio berri horrek arazo larria sortu zuen: nola hausnartu historia, etengabe sorkuntza prozesuan badago. Ikertzailearen ustez, *Socialismo ou Barbarie (SoB)* taldeak konponbide adibidea eskaini zuen bere funtzionamendu moduaren bidez. Pentsamendu klasikoan eta fabriketan behin eta berriz ematen zen gidari/gauzatzailer eskema; SoB-ko kideek, berriz, teoriak osatze aldera, kontuan hartzen zituzten Renaulteko eta beste enpresa batzuetako langileen ekarpenak. "Langileek lanari buruz pentsatzen zuten, eta izena edo irudia jartzen zioten. Egun, horri 'praktika metropolitanoa' esaten diogu. Praktika sorkuntza da eta historia pentsatzeko oinarria", Fernández Savaterren iritziz. Izan ere, Castoriadisek "autonomia proiektua" esan zion norberak pentsatzeko duen ahalmenari, taldean pentsatzeko ahalmenari eta beste batzuekin adostuta jarduteari, eta hori da bere pentsamendu teoriko guztiaren oinarria.

Ikertzailearen bigarren hausnarketak ardatz izan zituen memoria eta iraganarekin dugun hartu-emana. "Zergatik da memoria ahaztura baino interesgarriagoa?", galdetu zuen. Antoni Negrik amnesia beharrezko dugula dio, gehiegizko memoriak sorkuntza galarazten duelakoan; Castoriadisek, berriz, aldarrikatzen du memoria erabili egin behar dugula, ez eredu bezala, baina bai iturri bezala. Hortik abiatu behar dugu Castoriadis-en pentsamendua aztertzeko, dio Fernández Savatarrek, zeren eta haren ideia batzuek oraindik balio baitute eman diren aldaketak eta egungo errealitatea aztertzeko. Hala eta guztiz ere, Fernández Savatarren iritziz, castoridiar pentsamenduak baditu zenbait alderdi kritikatu beharrekoak. Lehen kritika da Castoriadisek proposatzen duen "autonomia proiektua" kontrajarria dagoela sortu zuen garaian nagusi zen burokraziaren kontzeptuarekin.

"Egun ez gaude eskema burokratikoaren aurka. Gizartea sare bat da, eta gure bizitzaren baldintzak eta hartu-emanak erabat aldarazi ditu. 60. hamarkadan borrokaren xedea zen eskemak puskatzea eta harago autonomia guneak sortzea; egun, berriz, bizi-baldintzak bizitzeko modukoak bihurtzea da, alegia, bizitzeko moduko guneak sortzea. Bigarren kritika *gizartea, erakunde global* delakoari dagokio. *Sare gizartean* borrokak partzialak dira eta etengabe berritzen dira; beraz, Fernández Savaterren esanetan, zaila da ontzat ematea Castoriadisek esaten duen borroka globala, eta beharrezkoa da beste planteamendu mota bat.